

gero. Apunte soil horiek pixka bat gehiago garatzen zituen ondoren beste koaderno batean, bertsio horren gainean hasten zen gero idazten, berrikusi, berridatzi, makinara pasatu, berriro idatzi, berriz makinara, editoreekin kontrastatu, berridatzi, argitaratu, eta argitaratu ostean ere, aukera zuen aldiro berridatzi.

Silabaz silabako ezagutza

Hondoko egitura eskeletiko horrekin batera, ordea, eguneroko solasaldien jariatutasuna duté bere ipuinek gainazalean. Eta, hain zuzen ere, funtsezkotzat zuen ahozko lengoaiaren musikaltasun hori idazleak. Azaldu izan zuenez, horregatik kokatzen zituen bere kontakizunak Irlandan, eta ez Ingalaterran edo AEBetan. «Nahiago izaten dut Irlandari buruz eta irlandarrei buruz idaztea, silabaz silaba dakidalako nola esan daitekeen dena Irlandan».

Yeatsen Txekhoven pare jarri zuen, baina ipuinak Irlandan kokatzeak O'Connoren sona urritu duela uste dute adituek

Eta nabarmena da musikaltasunarekiko kezka hori ahoz gora egindako irakurketetan ere. Haren hitzetan, «hizketan ari den gizon baten ahotsaren tonua» izan behar zutelako testuek.

Interneten erraz topa daitezke Irlandako XX. mendeko literaturari errepasoa egiten dion 1958ko *Irish tradition* izenburuko grabazioa, esaterako. Besteak beste, John Millington Synge, William Butler Yeats eta James Joyce aztertzen ditu bertan. Yeatsen aurkari modura aurkezten du Joyce, adibidez, eta idazteko era berri bat sortu izana ere aitortzen dio; «oraindik erabat ulertu ez duguna». Eta egile bakoitzari buruzko sarrera labur baten ostean, haien lanen pasarteak ere irakurtzen ditu gero idazleak. Testuaren beharren arabera moldatzen doa O'Connoren ahotsa orduan. Bizitzen, moteltzen, sendotzen edo arintzen, pertsonaien, prosaren erritmoaren edo idazkeraren arabera, eta kantuan ere entzun daiteke beste grabazio batzuetan.


Ipuingile ez ezik, antzerkigile eta itzultzaile ere izan zen. Sakon ezagutu zuen gaelikoz idatzitako Irlandako tradizioa, eta ingelese- ra ere itzuli zituen autore horietako asko. Ingelesean idatzi zuen berak beti, eta artikulu bat baino gehiago eskaini zion bikoiztasun horrek sortzen zizkieten kezkei, biak, nolabait ere, uztargarri zizutelako berak.

Herriaren historia, jendearen istorioak

Asier Urkiza

Euskarara ekarritako Luisa Carnes autore espainiarraren lehenengo liburua da *Hamahiru ipuin*, idazleak hainbat urtetan zehar idatzitako narrazioen bilduma, 2017an Hoja de Lata argitaletxeak publikatua eta orain Ereinen eskutik euskal literaturara iritsitakoa. Frankisten garai-pena dela-eta exiliatu behar izan zuen Mexikora Carnesek, zeina PCEko militante eta errepublikazale sutsua baitzen. Han hil zen 1963an, eta ipuinok ere badira bizi-ibilbide horren erakusle, Espainia errepublikarrean, gerra eta frankismo garaian zein 60ko hamarkadako Mexiko eta Amerikako Estatu Batuetan girotuta daudenez gero.

Gizarte errealitatearekin estuki lotutako kontakizunak dira guztiak, baina gertakari handiei ez ezik, eguneroko gorabeheri ere erreparatzen diete ipuinek. Area-



'Hamahiru ipuin'

Idazlea: Luisa Carnés. **Itzultzailea:** Danele Sarriugarte Mochales. **Argitaletxea:** Erein.

go, balirudike Carnesi horrek axola diola gehien, bien arteko sinbiosiak, gertaera handiek, gizartearen aldakuntzek norbana-koengan dituzten ondorioek, alegia. Hori horrela, jende apalaren bizitzetara zuzentzen du begirada idazleak, Historiaren baitako istorio txikiak, eguneroko xumera. Horixe egiten du gerra aurreko Madrilgo bizimodu urbano marrazten duten Tranbian, Bikiak eta Emakume itsusia narrazioetan. Errutinan itotako ametsak eta eguneroko triskantza isilak azaleratzen dira horrelakoetan. Carnes abila da deskribapenetan, gai da objektu domestiko ezdeuseen bidez pertsonaien egonezina adierazteko edota pertsonaien karakterizazio bizi eta sinesgarriak bizpahiru pintzelkadatan emateko. Noizbehinka kutsu poetikoa ere eransten die horiei, sinesgarritasuna eta errutina airea kaltetzeraino batzuetan. Gerra ardatz duten kontakizunak gordinagoak dira, hala emakume preso errepublikazaleak protagonistatzat dituen Salataria nola iheslarien barku bidezko ihesa kontatzen duen Iparrorratzike gabe. Aipatze-koa da azken horretan amatasuna nola jorratzen duen Carnesek, aski modu kritikoa, baina era

berean harengan indar gizatiarra ikusiz, Ama ereilearen unea saia- kera itxurako testuan antzeman daitezkeen bezala.

Deskribapen joriak eta gerra-osteko Espainia frankistaren estanpak eskaintzen ditu idazleak preso politiko baten askatzeaz diharduen *Etxean* narrazioan. Mexikon girotutako kontakizunak –*Mulatoa* eta *Familiako albuma*– aurrekoak baino indargabeagoak iruditu zaizkit, nahiz eta bigarrenaren asmo jostari eta umoretsua atsegina den. Hala-ber, AEBetan kokatutako *Smith jaun andreak* izenekoari behartuegia iritzi diot, maitasun harremanaren hasiera tentuz eta xehe- tasunei adi idatzita badago ere. Carnesek kamera itxurako ikuspuntua darabilenean du indarrak handiena, iruzkin sotilek doi apaindua, *Akelarre* kontakizun-ean bezala, zeina kanpo fokalizazio eraginkorrek zinema batean Elvisen pelikula berria ikusteko sortutako algaraz aritzen baita. Beste testu batzuetan igarritako asmo ironikoa erakusten du autoreak *Atezaina*-n, klase-erdiaren otzantasuna agerian utziz. Esanak esan, luxu handia da Carnes euskaraz gozatu ahal izatea, irits dakizkion irakurleari Historiaren barneko istorioak.


Her(r)i(h)otzaren mugetan

Nagore Fernandez

Edith Wharton idazle estatubatuar entzutetsu eta sarituaren *Ethan Frome* eleberri laburra euskaratu dute Miren Arratibel eta Aintzane Atelak, Erein eta Igela argitaletxeekin eta EIZIErekin elkarlanean. Jatorrizko bertsiorekin izenburu bera dakarren itzulpena XIX. mende bukaerako eta XX. hasierako Ingalaterra Berriaren girotuta dago. Mintzagai dugun nobelak, badu, baina, Whartonen lan gehientsuenekiko berezitasun txiki bat: kasu honetan, eleberriak klase ertain-altuko bizilagunak ez, ezpada landa eremuko Starkfield txikiko herritar xeheak bistaritzen dizkigu. Elurrezkoak dira deskribatzen diren paisaiak, hotzak neguko egunak, eta zuriak pertsonaien bizitzak, batez ere Ethan Frome protagonistarenak, mai-

tasun istorio tragiko baten pertsonaia nagusia izaki.

Maitasun ezinezkoa gai errepi- kakorretako bat dugu arte adierazpen eta garai guztietan. Hizpide dugun obra motibo diakroni-



'Ethan Frome'

Idazlea: Edith Wharton. **Itzultzaileak:** Miren Arratibel eta Aintzane Atela. **Argitaletxea:** Erein, Igela eta EIZIE.

ko eta unibertsal horren adibide argi bat dugu; ez da, hortaz, gai aldetik originala, bai, ordea, gaia tratatzeko eta kontatzeko moduan. Pretentsio handirik barik, itzulinguruak eta betegarriak albo batean utzi eta soiltasunetik dakartza istorioko gertaera eta pertsonaia guztiak. Zuzen eta artez kontatzearen aldeko hautua egin zuen idazleak obra idazterakoan, eta modu berean hezur- mitzen dira pertsonaien barne munduak ere. Nago, itzultzaileek ere premisa horri men egin eta erabili duten erregistro linguistikoarekin hori bera transmititu nahi izan dutela. Alde horretatik, azpimarratzekoa iruditzen zait Arratibelen eta Atelaren lana, beste hizkuntza batera ekarri arren, jatorrizkoaren esentzia mantentzeko giharra dutela erakutsi baitute, irakurketaren sinesgarritasunaren eta jariatutasunaren mesederako.

Narratzaileak ere badu berea. Hirugarren pertsonako kontalari bat agertzen zaigu, zeinak aktiboki parte hartzen ez badu ere, istorio barrutik diharduen. Bere presentzia pertsonaia bezala, obraren lehenengo eta azkeneko orrialdeetan da nabarmena. Gai-

nontzekoan, nitasunetik diharduen ahots hori, frometarren bizitzetan urtzen da, hain non, Ethan Frome eta enparauen nondik norakoez hitz egiterakoan, pertsonaia izatetik, kontalari «tradizional» bat izatera pasatzen den, horrek dakarren pertsona gramatikaren aldaketa eta guzti. Egia da joko narratibo horrek ez nauela ezustean harra- patu, idazleak, obraren hitzau- rrean, erabilera horren zergatia luze eta zabal azaltzen baitu, bai- na, ez da izan, traman sartu au- rretik, espero nuen erabilera. Kontakizunaren plano diegetiko edo narratiboan joko biziagoa es- pero nuen, liburua irekitzearekin batera aurkitu dudana narratzaile pixka bat detektibe kontuan izanda, Edgar Allan Poek *Rue Morgueko hillketak* lanean egiten duen antzeratsu, esate baterako. Idazlearen hautuaren zergatia ulertzen dudana arren, eta nahiz eta argi izan hizpide dugun obra ez dela polizia-nobela bat, aitor bekit alderdi horrek nire espek- tatiben horizontearekin talka egin duela. Hortaz, gai ohikoa erabili arren, esan daiteke idazle- ak erakutsi duela irakurle hau harrizteko trebezia nahikorik.